EUSKALKIAK IKASTETXEAN

1. Egoeraren Analisia

Burlatako Askatasuna BHI D ereduko zentroa da eta bertara DBH eta Batxilergoa egitera 509 ikasle etortzen dira eskualdeko hainbat herritatik, hala nola beste bailaretatik, esate baterako, Ultzamatik, Garraldatik.... Gure ikasle gehienek gaztelania dute ama hizkuntza eta harremanetarakoa. Gutxi batzuek euskaraz egiten dute etxean, duela bost urteko ikerketaren datuen arabera %5, hain zuzen.

Lehen Hezkuntzako jatorrizko ikastetxeetan euskara harremanetarako bultzatu bada ere, DBH egitera heldu bezain laster, gaztelania da haien artean nagusitzen dena. Eta, zoritxarrez, euskara eskola esparruari soilik atxikitzen zaion hizkuntza bihurtzen da. Beraiek esaten dutenez, erakusten zaienak ez du inolako freskotasunik haien artean hitz egiteko, liburuetako hizkuntza baita. Hala ere, gazte hizkera sustatzeko egin diren programek ere ez digute ideia hori kentzeko balio izan, ikasleek eskolarekin ere lotzen baitituzte.

Goian aipatu dudan bezala, %5ek erabiltzen du euskara gurasoekin, eta horien artean gehienak euskaldun berriak dira, hau da, batua da dakitena. Euskarazko aldizkariak eta egunkaria erosten dituztenak are gutxiago dira.

Bestalde, gero eta familia gehiagok ez dute euskararekin inolako konpromisorik, eta seme-alabak D ereduan matrikulatu badituzte, bestelako arrazoiengatik izan da. Horren ondorioz, euskara oso urrun bizi duten hizkuntza da, guztiz artifiziala eta arrotza.

Askatasuna BHIan aritzen garen irakasleen %20 euskaldun zaharra da, gainontzekoen gehienak birziklapenaren bidez euskaldunduak. Beraz, guretzat ere batua da tresna hurbilena eta ezagunena.

Horretaz gain, institutuen maleziak jota daude gure zentroko irakasleak, hau da, lan asko, ikasle arazodun eta arazo sortzaile gehiegi eta ordu gutxi hausnarketa eta hobekuntzarako. Hori dela eta, proiektu berri guztien aurrean oztopoak eta harresiak jarri ohi ditugu. Euskalkien inguruko planteamendu bat eginen bagenu, ez luke inolaz ere irakasleentzat lan eskerga izan beharko, bestela hasieratik bertan behera geldituko litzatekeelako. Horregatik proiektuak oso definitua eta zehaztua izan beharko luke, bai egiteko faseetan, bai baliabideetan, bai betebeharretan.

2. Hasi baino lehen hartu beharreko erabakiak eta oinarriak

Lehenik eta behin, uste dut proiektu honek lotura zuzena izan behar duela hizkuntzaren curriculumarekin eta ikastetxeko hizkuntza proiektuarekin. Horrela, bada, marko orokorra finkatu beharko da lehenbizi eta ondoren, beste zehaztapen mailak.

q **Marko orokorra:**

- Nafar Gobernuak D ereduko zentroetan hizkuntza proiektua bultzatu beharko luke, eta horretarako behar diren giza baliabideak eta materialak eskaintzea ezinbestekoa genuke.
- Marko orokor horretan eskualde bakoitzak bere zentroetan Nafarroako zein euskalki landuko litzatekeen erabakiko luke eta ildo nagusiak edota faseak markatuko. Azken horien artean irakasleen prestakuntza sartuko litzateke.
- Azpieuskalki bakoitzean batasunerako erabakiak bultzatu: nola idatzi, hiztegia, ahoskera, azentua...
- Eskualdeko azpieuskalkiari buruzko informazioa bertako eskola komunitateei helarazi: ikastaroak, material idatzia, entzumenak.
- Etapen arteko koordinazioa: zer eta nola landu Lehen Hezkuntzan; zer eta nola landu Bigarren Hezkuntzan.

q **Zehaztapenak:**

Zentroetan eskuratutako informazioaz eta prestakuntzaz baliaturik, hizkuntza proiektua egin:

- Lehen Hezkuntzan azpieuskalkia erabiliko litzateke ahalik eta komunikazio alor gehienetan, idatzian eta ahozkoan. Dena den, jakin badakigu Nafarroa hain txikia izanik zaila genukeela testu liburuak azpieuskalkietan izatea, beraz, Nafar Gobernuaren laguntza ezean, irakaslearen esku geldituko litzateke testu idatziak moldatzea.
- Bigarren Hezkuntzan: batua indartuko litzateke, baina, DBHko lehen eta bigarren mailetan behinik behin, ahozkoan azpieuskalkia erabiliko litzateke.
- DBHko 3. eta 4. mailetan Nafarroako beste euskalkien ezagutza bultzatu beharko litzateke.

3. Zentro baterako proposamen zehatza: Askatasuna BHI

q **Helburu orokorrak:**

- Eskualdeko azpieuskalkia bultzatuz euskara ikastea eta irakastea.
- Euskalkia afektibitaterako hizkuntza bihurtzea eta batua erregistro formalagoetarako uztea.
- Ikasleen jatorrizko ikastetxeekiko harremanak bultzatzea. Hizkuntzaren irakaskuntzarako koordinazioa lortzea.

q **Faseak:**

Eskualdean proiektua abian jarri aurretik hainbat urrats emanda egon beharko dira, marko orokorrari dagozkionak, alegia.

1. Fasea: koordinazioa

Gertuen dagoen eskualdeko azpieuskalkiari buruzko informazioa eta prestakuntza jaso ondoren, bertako eskolek eta institutuek adostu beharko dute hizkuntza proiektua. Horretan metodologia, jarduerak eta gutxienezko edukiak mailaka zehaztuko dira.

Agian bi programazio mota egin beharko dira: Haur Hezkuntzan azpieuskalkian euskalduntzen hasten direnendakoa eta "aldaketa" garaia biziko dutenendakoa.

2. Fasea: material idatzia eta ahozkoa.

Arloetako irakasleek materiala egokitu eta bilatu beharko lukete, geroago eguneroko lana errazteko.

3. Fasea: saiakera.

Eguneroko ahozko jardunean irakaslea azpieuskalkian aritzen saiatuko da, eta ahal den neurrian, arloko materialak hartara moldatuta eramanen ditu klasera. Oraingoz ez zaie ikasleei horrela mintzatzea eskatuko, ereduak eskaintzea besterik ez da.

Ikastetxean egiten diren iragarkiak, mezuak eta hormirudiak azpieuskalkian egiten saiatuko gara. Gurasoendako eskutitzak, berriz, batuaz.

Hasieran "Aldaketa garaia"n egonen garenez, hiruhilero ebaluatu beharko genuke egindako lana eta izandako arazoak.

Ikasturtearen bukaeran ere proiektua ebaluatu beharko da eta hobetzeko proposamenak atera.

4. fasea: indartzea, proiektuaren bigarren urtea.

Aurreko urtekoaz gain, oraingo honetan Hizkuntza eta HJA (edota Gizarte) irakasgaietan euskalkia erabiltzeko eskatuko zaie ikasleei, afektibitatearekin lotuago dauden jardueretan. Bestalde, euskalkia erabiltzen duten pertsonen bisitak eta mintzaldiak izatea komeniko litzateke.

Ikasturtearen bukaeran proiektua ebaluatu beharko da eta hobetzeko proposamenak atera.

5. fasea: indartzea, trukatzea.

Aurreko urteetakoaz gainera, fase honetan euskalki berbera darabilten ikasleen arteko komunikazioa bultzatuko da, interneten bidez, bisitaldiak antolatuz edota eskola trukaketak eginez.

Ikasturtearen bukaeran proiektua ebaluatu beharko da eta hobetzeko proposamenak atera.

6. fasea: indartzea, zabaltzea.

Herrietako beste instituzioekin harremanetan jarri eta eskola-institutuetan egiten ari denaren berri emanen zaie, haiek gazteendako antolatzen dituzten ekimenetan euskalkia bultza dezaten.

Ikasturtearen bukaeran ere proiektua ebaluatu beharko da eta hobetzeko proposamenak atera.

7. fasea:

Aurreko urteetan ez dira eskoletakoekiko harremanak eten behar, eurek dituzten ikasleak gurera etorriko baitira eta zerbaitek funtziona dezan jarraipen luzea eta koordinatua izan behar du. Beraz, honetan elkarrekin egindako lana berrikusi eta, behar bada, berrantolatuko da.

q **Proiektuaren ebaluazioa:**

Urtero zentroan proiektuaren ebaluazioa eginen da irizpide hauen arabera:

-Ikasleek euskalkia erabiltzen duten.

-Harremanetarako hizkuntza aldatu den.

-Hizkuntzaren inguruko iritzia aldatu den.

-Izan ditugun arazoak edo oztopoak.

-Euskararen kalitatea hobetu den.

4. Proiektua aurrera eramateko aurreikusten ditudan arazoak

Egia esan, egunerokotasunak jaten ditu gure gogoa eta indarrak, oso denbora gutxi gelditzen zaigu hausnarketarako eta hobekuntzarako. Horrelako berrikuntza antolatzeko, lehenago aipatu dudan bezala, giza- eta bestelako baliabideak beharko genituzke, dirua azken finean. Eta diruaz ari garenean, eskola publikoan arazo larria bihurtzen da. Zoritxarrez, aurrera eramaten diren proiektu guztiek irakasleen gogoarekin besterik ez dute kontatzen; horrek, noski, ez digu arrakasta bermatzen. Horrexegatik, funtsezkoa deritzot Hezkuntza Departamentuaren laguntza izateari.

Bestalde, kontuan hartzekoa da irakasleen egonkortasun eza. Gure ikastetxeko %50 aldi baterako kontratatua edo behin-behinekoa da. Hala izanik, zaila gerta dakiguke aldian aldiko irakasleek landu nahi den euskalkian aritzen jakitea. Finkoen ardurapean gelditukо litzateke proiektu hau ere aurrera eramatea.

Bukatzeko esan beharra daukat emandako ideiek zirriborro hutsa osatzen dutela, horiek benetan gauzatzeko ikerketa eta hausnarketa sakonagoa egin beharko litzatekeela.

Burlata, 2006ko martxoaren 16a

Sandra Oiartzun